

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1349/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, 2007-2013 aldirako «Gazte-ekintzak» programa arautzen duen 1719/2006/EE Erabakia aldatzen duena.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISION No 1349/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 que modifica la Decisión no 1719/2006/CE por la que se establece el programa «La juventud en acción» para el período 2007-2013» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 348/113, 2008/12/24koa)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1349/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, 2007-2013 aldirako «Gazte-ekintzak» programa arautzen duen 1719/2006/EE Erabakia aldatzen duena.

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK, Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute eta, bereziki, haren 149. artikuluko 4. paragrafoa,

Europako Batzordeak egindako proposamena aztertu da,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu da ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan xedatutako prozedura bete dute ⁽²⁾

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 1719/2006/EE erabakiak ⁽³⁾, 2007-2013 aldirako «Gazteak ekinean» programa arautu zuen.

(2) 1719/2006/EE Erabakiak, 10. artikuluko 2. paragrafoan, xedatzen du 1. paragrafoan aipatu ez diren programa egiteko beharrezko neurriak erabaki horretako 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera onartu beharko direla; hau da, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenean, xedatutako kontsultarako prozeduraren arabera ⁽⁴⁾.

(3) 1719/2006/EE Erabakiaren eraginez, bereziki, erabakiko 10. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoak ez diren diru-laguntzak emateko erabakiek kontsultarako prozedura igaro beharko dute eta Europako Parlamentuaren kontrol-eskubidearen mende jarri beharko dira.

(4) Hala ere, hautaketa-erabaki horiek, nagusiki, diru-laguntza txikien gainekoak dira eta ez dute eskatzen politikoki zailak diren erabakiak hartzea.

(5) Prozedurazko betekizun horien eraginez, hautagaiei diru-laguntzak emateko prozesua bi edo hiru hilabetez luzatu ohi da. Hainbat atzerapen ekartzen dizkiete onuradunei, neurritz kanpoko zama ezartzen dute programaren administrazioan eta ez dute balio erantsirik ematen, emandako diru-laguntzak zer-nolakoak diren kontuan hartuta.

(6) Hautaketa-erabakiak azkarrago eta modu eraginkorragoan har daitezten, beharrezkoa da kontsultarako prozedura kentzea eta horren ordez Batzordeari betebehartzat jartzea atzerapenik gabe Europako Parlamentuari eta Estatu kideei jakinaraz diezazkiela komiteak lagundu gabe 1719/2006/EE Erabakia gauzatzeko hartutako neurri guztiak.

HAU ERABAKI DUTE:

1. artikulua

1719/2006/EE Erabakian aldaketa hauek egin dira:

1) 9. artikuluko 3. paragrafoa kendu da.

2) 10. artikuluko 2. paragrafoaren ordez hau jarri da:

«2. Batzordeak erabaki hau gauzatzeko hartuko dituen gainerako hautaketa-erabaki guztien berri emango die 9. artikuluan aipatutako komiteari eta Europako Parlamentuari, bi laneguneko epean, aipatutako erabakiak hartzen direnetik kontaktan hasita. Jakinarazpen horretan hauek adieraziko dira: jasotako eskaeren azalpena eta analisia, balioztatze- eta hautaketa-prozesuen deskribapena, eta finantzatzeko proposatutako proiektuen eta baztertutako proiektuen zerrendak. ».

¹ C 224 EO, 2008.08.30ekoa, 113. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 2koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabe) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 20koa.

³ L 327 EO, 2006.11.24koa, 30. or.

⁴ L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. artikulua

Batzordeak, 2010eko ekainaren 25a baino lehen, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko dizkie erabaki honek izan dituen ondorioak.

3. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean. Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea,
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea,
B. LE MAIRE L